



# ANAITASUNA

AÑO I — Núm. 3

Suplemento a la Hoja  
"ANAITASUNA" de Guipúzcoa

Septiembre 1953

## GAURKO GAI XOA

Neskatilla aren erantzupenak arri ta zur itxi ninduan. "Egin dot nik eleizan Jainkoagazko egitekoa. Ez da ori naikoa ala?". Eta au esan ostean, trankil trankil bere mutillagaz ziñe zantar bat ikustera joan zan.

Neskatilla agan, persona bi lakoze bizi zirean: bata goizean eleizara, bestea illuntzean nasaikerira joaten zana. Bere arimea, erdibituta-lez egoan; bikotxa zan.

Zoritzarrez, bikoizkeri orixe, dualismo orixe da ogeigarren gizaldiko kristiñauen gaixoa. Eleiza barruan erakusten dituen fedea, zintzotasuna, batasuna, adorea, antxe geratuten dira; ez dabe urtetan plazara, ziñera, kafera, plaiara, mendira. Erlegiñoa, antza danez, ona da eleizarako, baiña ez bizitzarako.

Entzun au:

**Bizkaia ta Gipuzkoa, meza entzuten ta Pazkoz komulgetan, Espaiñi guztian lenenatarikoak dira.**

Ta orren ondoan entzun beste au:

**Bizkaia ta Gipuzkoa, saillez sail, —au da, proporziñoa kontuan eukita, —Espaiñi osoan ardaorik geien**

**edaten dabenak dira.** (Gauza ona da ardaoa, baiña ez larregi edatea).

Ta olantxe beste puntu askotan. Jantzi bat eleizarako, beste bat kale-rako. Erdibitu egin dogu gure arimea.

**Zegaitik bikoizkeri ori, dualismo ori?** Kristiñau oso osoak izaten bagara, gero triste biziko gareala-ta?

Munduaren aurrean, soziedade bizitzan kristiñau-lez agertzeko lotsa ta bildur garealako?

Edonoiz eta edonun zintzoak izateko, danok batera, alkarregaz indartuta, ekin bear geunkealako?

Bai! Orrexegaitik-edo uste dot dala. Baiña, baita beste gauza bategaitik-bere.

**Ez daukogu gure begien aurrean ames aundirik, idealismo zoragarririk: jaioterri oba baten amesa, alkar maitasunaren idealismoa.**

Ames orreek bageunkoz, bene benetan sentiduko bagenduz, nora ezean Kristogana joko geunke, ta bere jarraitzailleak gareana edonoiz eta edonun erakutsiko.



|      | 1 | 2 | 3 | 4 | 5 | 6 | 7 | 8 |
|------|---|---|---|---|---|---|---|---|
| I    |   |   |   |   |   |   |   | ■ |
| II   |   |   |   |   | ■ |   |   |   |
| III  |   |   |   |   | ■ |   |   |   |
| IV   |   |   |   | ■ |   |   | ■ |   |
| V    |   | ■ | ■ | ■ | ■ | ■ |   |   |
| VI   |   |   |   |   | ■ |   |   |   |
| VII  |   |   |   |   |   |   |   |   |
| VIII |   |   |   |   |   |   | ■ |   |

Goitik beera: 1. Euskalerriko itxasertzeko erria.—2. Txoriak egiten dabena. Etxeak egiteko egur luze ta lodia.—3. Gernika aldean, intxaur azal berdeak egiten dabena. Geiegi.—4. Letra baten izena. Ogi egiteko, urun, ur eta lebadureagazko nastea.—5. Konsonantea. Konsonantea.—6. Emakumeen soñekoa. Arraiñak atrapetakoa.—7. Garaudun bedarra. Garrasi tristea.—8. Emea ez dana. Itxas-langostatako otzarea.

Ezkerretatik eskumaldera: 1. Guztien aurretikoa.—2. Ertza. Aintxiñako frabikea.—3. Eraztuneko lokarria. Zein.—4. Sikua ez dana. Vokala.—5. Vokala. Azur mamiña.—6. Arto urunezko ogi meea. Dolorea.—7. Mendi artean erreka bat pasetan daneko zelaia. Euskaldunen karta jokoa.—8. Lotara joan. Vokala.

## OLGETAN - BENETAN

Neskak, gogaituta naukazue; beti entzuten zaituet jantzien ganean berbetan.

Beste gauza altuagoak erabili bear dozuez zuen artean.

—Bai, aital! Orixe gagoz egiten. Sonbreruen ganean berba egiten gabiltz.

—Nire mutillak bost urte bakarrik ditu, ta amar killoko egurrak altzetan dauz.

—Ba...nireak askoz geiago egiten dau.

—Benetan?

—Bai, gizon! Bost illabete bakarrik ditu, ta gabaz etxeko guztiok altzetan gaitu.

Telefonoz emakume larri batek osagillari:

—Mediku Jauna, mesedez! Etorri leiteke beingo beingoan? Umeak, irunsi egin deust luma estilografikua.

—Aitearen! Luma estilografikual Banoa jarraian.

—Eskerrik asko, Jauna! Ta esan beist: Bien bitartea zer egingo dot?

—Ba...lumearen orde, lapizeguz eskribidul



## SAKRAMENTUAK

4.—Zer dira Ilen Sakramentuak, eta zegaitik deritxoe olan?

5.—Sakramentu guztiak emoten dabe grazia, baiña esaidazuz gauzaxo bi:

a) Sakramentuak eurak dira graziaren iturri, ala

b) Jainkoa bera ez ete da, Sakramentuen okasiño, arimetara grazia bialtzen dabena?

6.—Bein baten, Aita Paulok Bateoko zeremoni guztiak ondo ta zeatz egin zituan, baiña bere senetik urtenda eta zer egiten eban ez ekiala. Sakramentuak, eurak euretara grazia emoten badabe, orduan Bateo ori ona izan zan. Oker nago, ala zuzen?

7.—Zerura joateko, zeintzuk dira bear bearreko Sakramentuak?

(Erantzupenak azkenengo paginñan)

## ZURE GAZTAROAN AINBAT GOZOEN BIZITEKO ETA LOTAN EZ EGOTEKO

EZ EIZU PASAU ZURE EDADERIK EDERRENA  
EGOISMO ZEKENEAN,  
NORBEREKERIAK TXIKIA EGITEN ZAITU-TA.

Ez saldu zure gaztetasuna pasiño ziztrin bateri, griña txar orrek  
arnasa artzen-be ez deutsu itxiko-ta; ez euki lan egin barik  
biziteko amesa, "señorito"en antzera, ogei urtera ezker **mutil  
nai neska zar** bat eginda geratuko zara-ta.

ZURE GAZTETASUNA EZ IGARTU GUZURREZKO BIZITZAN  
iñoren amoreagaz olgetan,  
bear ez dana maitetan zabiltzala.

Ez egin ori, gauza aundiagorako zara-ta.

MAITE EGIZU BIOTZ GUZTITIK BENETAKO AMOREA,  
BIZI ZAITEZ BENETAKO ASKATASUNEAN,  
LAN EGIZU ZURE ERRIA BARRIZTETAN.

EZ IGARO GAZTE DENPOREA, ZURE BIOTZA ERDIZKA  
BAKARRIK BETETAN DABEN IDEALISMOAN, GAUZA  
ONAREN ANTZA BAKARRIK DAUKON ASMAKERIAN;  
GERO AZKENEAN, GAZTAROA JOAN YATZUNEAN,  
BIZITZARAKO PRESTAERA BARIK GERATUKO ZARA-TA.

Zure arimea aundiegia da, domeketan mendi tontorretan  
artzen dozun aize garbiagaz naikotuteko, amorezko  
kantakaz, futbol nai pelota partiduakaz, jantzan ibilliagaz  
asetuteko.

EZEIOZU EMON ZURE GAZTETASUNA GUZURREZ-  
KO MISTIKEARI, azkenean dotriña txar orrek galdu  
egingo zaitu-ta: edo buruzale utsa biurtuko zara, edo  
betiko sosegu barik biziko.

EMON EIOZU KRISTORI, EMON BERARI ZURE GAZTE BIZITZEA, kristiñautasuna  
mistika bat da-ta: indartsuena, bizkorrena, eragilleena, zure  
arimea gonbururairiño beteko dabena, mundua salbau leikean  
bizimodu bakarra.

FEDE TA BIOTZEZ KRISTORI EMONDA ZAGOZAN GAZTEA!

Jakin eizu kristiñau erlegiñoa Ideal bat dala, elburu  
ederra, gogoia guztiz betetan dabena dotriña,  
ezin obeto biziteko bidea.





4.—Bateoa ta Penitentzia dira **Il**len Sakramentuak. Eta esango deusut zegaitik. Pekatuak kentzen deusku grazizko bizitzea. Jatorrizko pekatuan **ilda** gengozala, Bateoaren bidez etorri giñean **bizitza** orretara. Bateatuta gero, pekatu **mortalagaitik** bizitza ori **il**ten baiaku, Penitentzi edo Confesiñoko Sakramentuak ekarriko gaitu barriro grazizko **bizitzara**. Orra or Bateoa ta Penitentzia zegaitik di-rean **Il**len Sakramentuak.


5.—Sakramentuak egiteko bear direan zeremoniak (esate baterako: Bateoan uragaz busti ta berbak esan) graziaren **benetako kausa** dira, ez bakarrik okasiño; **graziaren iturri** dira, ez bakarrik graziaren bide.

Alantxe gura izan dau Jainkoak, Sakramentuen Egilleak. Orixe adierazoten deuskue Teologoak, Sakramentuak Jainkoaren grazia **ex opere operato** emoten dabela diñoenean.

6.—Oker zagoz. Sakramentuak eta euren zeremoniak ondo egifiñez ganera, Jesukristok eta bere Eleizeak gura dabena egiteko intentziñoa euki bear dau Sakramentu emoilleak. Aita Paulo gizajoak, egokera orretan, ezin euki intentziño ori Orrexegaitik, berak egifiñiko Bateoak ez eban balio izan.

7.—Salbetako, Bateoa da bear bearreko Sakramentua. Bateatuta gero, pekatu aztunean jausi ezkerro, Konfesiñoko Sakramentu barik edo kontriziñozko damu barik ezin gein-tekez salbau.

Onek ez dau esan gura Konfirmaziñoa, Eukaristia ta Azken Oleaziñoa artu ezarren, ez dala ardura. Beste baten jakingo dozu noiz eta zelan daukogun Sakramentu orreek artzeko obligaziñoa.



Erderaz berba egiten daberen katolikuenak. Ba dakizue aurki **Osservatore Romano** periodikua, Erromako Vatikanon argitaratuten dana. Periodiku orrek diñoan-lez, mundu guztiko katolikuen artean, euneko ogetamazortzik (38,04%) erderaz berba egiten dabe. Andorra: 5 000; Argentina: 14.955.245; Bolivia: 3.851.022; Chile: 5.500.000; Colombia: 10.450 000; Costa Rica: 807.260; Cuba: 4.000.000; Santo Domingo: 2.211.834; Ecuador: 3.123.000; El Salvador: 1.675.000; Espaiña: 29.516.467; Filipinas:

16.000.000; Guatemala: 3.011.550; Guinea Espaiñola: 112.959; Honduras: 1.502.000; Mexiko: 25.268.008; Marroco Espaiñola: 113.164; Nicaragua: 1.142.622; Panama: 610.000; Paraguay: 1.611.000; Peru: 8.070.039; Porto Rico: 2.030 000; Uruguay: 1.885.000; Venezuela: 5.225 000. Erderaz egiten daberen katoliku guztiak batera jota: 142.676.170.

Norte Amerikako eleizgizonik ospetsuena. Arean-bere, **Fulton Sheen** Jauna da Ipar Amerikako eleizgizonik famatuena. New York'eko Kardenalaren Obispo Laguntzaillea da. Entzute aundia lortu eban, orain 23 urte direala, domekan domekan radioz berba egiten asi zanean. Eta fama ori, ara bere aundiagoa egin zan, telebisiñoa agertu zanean. Milla dira beragaitik katoliku egin direan protestanteak. Zazpireun ta berrogetamar milla karta bialdu deustoz bere entzuleak azkenengo bederlatzi illabeteetan.

Dirección responsable: R. P. Director de "ANAITASUNA" TOLOSA (Guipúzcoa)

Imprenta Moderna.-Guernica